

1728/2022 EBAZPENA, irailaren 12koa, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESiko Gaixotasun Infekziosoetako zerbitzu sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen maiatzaren 10ekoa 733/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Gaixotasun Infekziosoetako zerbitzu sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko abuztuaren 2ko EHAA 148 zk. eta 2022ko abuztuaren 8ko BOE 189 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 31n amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Bilbo-Basurtuko ESiko Gaixotasun Infekziosoetako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Bilbo-Basurtu ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbo, 2022ko irailaren 12a.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



Osakidetza
BILBO-BASURTO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO
ZUZENDARI GERENTE
DIRECTOR GERENTE
Izot/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano



I. ERANSKINA

**GAIXOTASUN INFEKZIOSOETAKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENENKO
LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- **Sofía Ibarra Ugarte andrea.**

Baztertuak:

- **Inor ez.**